

BILBO. Liburu aurkezpena: Irailaren 27an (asteazkena) 19etan La Bolsan (Pilota kalea)

Guerrero estatuan 43 ikasle desagertu zituztenetik 3. urtemuga betetzen den aste honetan, Ayotzinaparekin plataformak asteartean egingo den elkarretaratzearen ostean, asteazkenean Carlos Martín Beristainen eskutik 'El tiempo de Ayotzinapa' liburuaren aurkezpena antolatu du.

Bi deialdi hauen bidez 43 ikasleak bizirik agertzea exijituko da eta Estatuaren inplikazioa salatuko da, izua zabaltzeko eta protesta soziala geldiarazteko estrategia global baten barruan kokatzen bait da.